

KRISTO ITZULI DA, BERE EGIA DAKAR

4. GUTUNA

Ni, KRISTO, – zureganako maitasunean – etorri naiz orain dela 2000 urte Palestinan basamortuko nire iluminazioan nabaritu nuen guztia laburbiltzera, zeina juduei irakasten saiatu bainintzen. Nire bizitzaren xehetasun batzuk **1., 2. eta 3. GUTUNETAN** kontatuak izan dira.

Horiek irakurri badituzu, jakingo duzu zure ongizaterako oso garrantzitsua dela zera ulertzea: nahiz eta nire jarraitzaileek azkenean nire bizitzaren eta irakaspenen narrazioetan oinarritutako 'Kristautasuna' delako erlijioa sortu, ez naizela **GUTUNOK** diktatzen ari jarraitzaileek irakatsitakoa baieztatzeko. Kristautasuna erlijio formala da, egokitasun **hutsagatik** sineskera asko hartu zuena; hain zuzen, **IZATEAREN ITURRIAREN** Egia espiritualaren aurkako sineskerak.

Zer ikusia du odol isurketak ESPIRITU UNIBERTSALAREKIN?

Honezkero jakingo duzunez, nire irakaspena, Palestinako lurraldean eman nuen misioaren hasieratik, goreneko **Existentzia** espiritualaren **Egiatik** sortu zen beti, zerikusirik izan gabe giza gogamenak irakatsitako konzeptuekin eta arrazionalismoekin.

Beraz, berriro diot, duela 2000 urte nire pertsonaren izena **Jesus** bazen ere; orain nire presentziaren helburua **-PRESENTZIA KRISTIKOA GUTUN** hauetan-, arima sentibera eta inspiratuengana heltzea da; azkenean mundua sartuko den etorkizuneko ikaraldian, **Zeruko Laguntzaz** nola baliatu behar duten irakasteko. Horregatik, harrera egin diezadaketen pertsonak erreskatatzeko edo berrerosteko dudan gogo indartsua, **EXISTENTZIAREN EGIA** gisa gauzatu da **GUTUN** hauetan. Jakizu hori eta haintzat hartu!

Jesusalem suntsitua izan baino 70 urte lehenago Palestinara, juduengana joan nintzela jakin dezazun **–kontuan har dezazun–** nahi dut.

Juduengana zera jakinaraztera etorri nintzen: beren jokabide kodeak inolako baliorik izango ez zuela, etorkizuneko garai latza gainera erori, eta horrek mundu etsaitu batera eramango zituenean. Ebanjelio batean jasotzen da etsita negar egin nuela deitoratuz jendea elkartu izana, 'oilalokak txitoak hegapean batzen dituen legez' suntsitzerako orduan babesteko; baina jendeak ez zidan jaramonik egin. Horren orde, judutar erlijio buruek hil egin ninduten.

Baina juduen sakabanaketaren ondoren, Tenplua kendu zietenean, ikasi al zuten eskarmentutik? Hausnartu al zuten zergatik harrapatu zituen hondamendi horrek ustegabeen? Ez, tradizio zaharrekin eta gehiagotasun sineskerarekin jarraitu zuten nahiz eta gertaera historikoek behin eta berriro erakutsi zieten ezbeharren menpe zeudela, gainerakoak bezala. Momentu honetantxe, **Palestinan irakatsi nizkien EXISTENTZIAREN EGIAK** alde batera uztea aukeratu dute, eta Palestinan bizi nintzenean zeuden

egoera berberak bilatzen ari dira. Nonahi bizi izanda ere, juduen balore materialistak, eta **–burua begiordez–** bezalako tradizioak zera erarakartze ari dira eurentzat ere: beste batzuentzat denboran zehar harrokeriagatik eta zekenkeriagatik sortu duten giza pena bera. Pairatu duten guztia berek bilatu dute.

Hori Juduekin –beren munduko finantza arloetan duten gaitasunagatik– bat egin dutenei ere aplikatzen zaie. Nortzuek iraunarazten dute goserik munduko biztanleria gehiena, bildutako janaria nahikoa denean jendeari jaten emateko ‘existentziagatik irabazia’ abandonatuko balitz? Borondaterik balego, finantza buruek merkantzien soberakina behartsuei banatzeko planak proposa eta martxan jar litzakete.

Hori egingo balute, unibertso osoak bedeinkazioz edo onespenez erantzungo lieke, munduko ekonomia loratuko litzateke, eta bakea munduko kondizio bihurtuko litzateke.

Hori gertatu baino lehenago, aurrena giza esperientzian gauzatu behar da **MUNDUAN ZEHAR egintza erasokor eta doilortuek kontzientzian sortutako guztia** –ez zigor bezala, **EXISTENTZIAREN LEGEEN** ondorio natural bezala baizik.

Egon zaitetz ziur besteen ‘gaitzaren’ aurka babesten diren herriak, iragan urteetan beren ‘kontzientzia-haziek eta egintzek’ sortutako ondorioak baino ez direla pairatzen ari. Hortaz, beldurrarazteko taktikek, ahaltsuenek ahulen aurka egindako eraso ankerrek, -ez du axola zenbat jasangaitza iruditzen zaien ahulei- arazoaldi okerragoak soilik ekar ditzakete tiranoentzat. ‘Ziztakoa’ esperimentatu duten tokian, orain beste batzuen kontra deskargatzen ari diren etorkizuneko suntsipena ari dira metatzen kontzientzian. Beharbada, ahulen ‘ziztakoa’ kontuan hartu beharko lukete arreta-deia bezala; hots, beherakada moralean irristatzearen arreta-deia bezala.

Aipatu pertsonak **EXISTENTZIAREN LEGEAK** etengabe urratzen ari direnez hirien gainera eta lur gainera sekulako hondamendia erakartzen ari direlarik, nire asmoa **Gutun** honetan ez da soilik Palestinan bizi izandako eta irakatsitako guztia laburbiltzea, baizik eta hurbiltzen ari den krisi mundialaren azpiko kausak argi eta garbi azaltzea. Esan beharra daukat krisi horretaz ez nintzela aritu gizateriari hitz egitera etorri nintzen azken aldian.

GUTUN hauek zuen historiako garairik krudelena gertatu aurretik izan dira idatziak; eta orain, larritasuna hemen dagoen honetan galdetuko duzue zergatik ez nizuen lehenago abisatu.

Hala ere, esango dizut ahaleginak egin ditudala mundua alertatzen gogamen harkorren bitartez, orain dela hogeitabost urtetik hona; baina ez direla prest egon niri hitz egiteko aukerarik emateko: ez medioak, ez argitaletxeak, ezta telebistak ere.

Politikoez izan dute aukera, baina Nik Kristok, ez dut betarik izan zuregana iristeko; alde batetik bihotzen gogorkeriagatik, eta bestetik, Ni, Kristo bizia, berriz une honetan itzul nintekeela onartzeari uko egiteagatik; hau da, ez sinesteagatik gogamen desprogramatu eta arituen bitartez itzul nintekeela nazioei ohartaraztera zer ari ziren sortzen euren etorkizunerako.

Elizak, nire existentzian sinesten dutela baieztatzen dutenak, materialistak bezain barneratuta egon dira beren erlijio-tradizioetan, gizalegez sortutako tradizioetan, alegia. Orain hamaikagarren orduan, beldurra jendartera jaitsi denean eta jende hori nire hitzei jaramon egiteko prest dagoenean, atak salbuespenik gabe ireki behar dira, edo berriz ere nire ahaleginak alfer-alferrekoak izango dira gizateriarentzat.

Bene-benetan, 'ahuntzen' eta 'ardien' artean banaketa egongo dela esatera etorri naiz, Bibliako ebanjelioetan kontatzen den legez. 'Ardiak', lurlean sekula zabaldu ez den egia espiritualik gorena bakean jasotzeko gai diren arimak ditugu. 'Ahuntzak' berriz, ez inori, ez ezeri entzuteko gaitasunik ez dutenak dira, egoaren eta espirituaren bulkada bihurria gogorregi daukatelako.

Zer dela eta banatuko dira garai honetan? Banatu egingo dira, zeren orrialde hauek daukaten egia jasotzeko eta **EXISTENTZIAREN LEGEEN** arautegi honen arabera bizitzeko gai diren pertsonen **ikusiko baitute** bake eta babes erlatiboarekin jarraituko dutela beharraren asetasunean eta espirituaren goratzean, munduko historiaren hurrengo aldia benetan samina izan arren. 'Ahuntzek' zoritxarrez, jatorriz duten kontzientzia bihurriaren indarkeria izugarria jasan behar izango dute.

EZ da Goiko Norbaiten zigorra, EXISTENTZIAREN LEGEEN berezko funtzionamendua baizik: azkenean gorputzean, bizitzan eta inguruan agertuko da gogamenean eta bihotzean eramaten dena. Aurre egitean eta asaldatzean, bizitzak -zure gogo bete nahian- gogortasuna eskainiko dizu.

Zeruko Erresumetan Kontzientziaren goreneko bibrazio-frekuentzietaraino igoa naiz aspaldian, eta Zeruko Kontzientzia Bera indibidualizatua naiz ni. Nire kontzientziak lur globoa ingura dezake hots egiten didan nornahiri erantzuteko.

Horrelaxe da munduan bizi izandako eta iluminatu edo goi-argitutako Maisu-Maistra guztiekin; zeintzuek hauteman zuten **IZATE** ororen **ITURRIAREN ERREALITATEA**, eta irakatsi dioten jendeari iluminazio-maila gorenetik.

Ahalmen espiritualean igoaraziak izan ziren, giza kontzientziaren estalki trinkoa zeharkatzeko eta 'materiaren' mundutik haratago benetan dagoena hautemateko. Aurreko kondizio mentalak uzten zien bezain argi ikusi zuten sortzearen oinarritzko batasuna, Sormenaren Erresumaren beraren baitan.

Denek, existentziaren hurrengo dimentsiora igaro ondoren, berraragitze-gurpiletik ihes egin dute eta aurrera egin dute gero eta banako-kontzientzia espiritual garbiagoa den erresumetara, **KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN** beraren ateetaraino. **ZERUKO KONTZIENTZIA** indibidualizatu bihurtu dira; eta Zeruko Kontzientziaren ahalmena eta barne-ikusmena daukate. Aurreko GUTUN batean nioenez, **KONTZIENTZIA KRISTIKOAN** ere parte hartzen dute. Maitasun Adimentsuaren eta Adimen Amultsuaren altuerak uztartzen dituzte, Nahiaren Ahalmena Helburuaren Ahalmenarekin uztartuz. Beren dinamismoan maskulino bezain femenino dira. Indarraren eta elikaduraren erakusketa perfektua dira.

Gizon emakume guztiek lortzen saiatu beharko luketen EREDU perfektua dira.

Izatearen halako perfekzioa lortzeko, giza-espirtuak alde batera utzi behar du zatiketa eta lehia oro. Zure Profetarik aldarrikatuena edozein izanda ere, ziur egon zaitezke **BIZIA BERA** dela, eta indartsua dela Maisu/Maistra handien Senitartean. Profeta bakoitzak, Maisu/Maistra bakoitzak, **ERREALITATE** bera hauteman du eta hain modu debotuan bizi izan da, ezen horrek bermatu baitzien **azkenean Gizaki ororen helburua lortuko zutela, hau da, perfekzioa Paradisuan.**

Garrantzi handikoa da zuk hori ulertzea, eta Maisu/Maistren artean egiten duzun zatiketa guztiz okerra dela jabetzea, denok bat garelako **IZATEAREN ITURRI BER-BEREAN**. Biziaren Izakien Senitartea

gara, **eta nork** bere banakotasunaren bidez, gure **IZATEAREN ITURRIAREN** goreneko **EGIA** manifestatzen dugu.

Gu berdin berdinak gara araztasunean, ahalmenean, edertasunean, espirituaren handitasunean eta maitasunean.

BERAZ, erlijio-sineskera guztietako 'ardiek', beren IZATEAREN ITURRIAREN oinarrizko batasunaren ulerkuntza espiritualean nahikoa aurreratu duten guztiek, berdintasunean eta senidetasunean elkartzea bilatu beharra daukate agudo euren hiri eta herrietan; eta eskua elkarri luzatu eta harremanetan jarri behar dute munduan zehar diren senide espiritualekin, hortik kanpo zer gertatzen den kontuan hartu gabe. Orozgainditu egin behar da erlijio-ezberdintasun oro: Kristaia, Musulmana, Sufia, Judutarra, Israeldarra, Hinduista, Budista eta abar; eta halaber, 'ardi' guztiek ikusi behar dute berdin-berdin daudela denak Maitasun Unibertsalaren eta Babes Adimentsuaren zeru seguruaren baitan, bakean euren buruarekin, bata bestearekin, eta azkeneraino borrokatzeko prest dauden guztiekin.

HORRELA SOILIK BIZIRAUNGO DU PLANETAK ETORRIKO ZAIZKION ISTILUETATIK.

Ez musulman, ez kristau, ez budista, ez diren guztientzat ere etorri naiz. Existentziaren atzean dagoen **Errealitatea** jakin nahi duten, edo irrikitan dauden, guztientzat etorri naiz.

Esan dizut -Jesus pertsona bezala- etorri nintzela Palestinako Juduen artera. Berdin esan nezakeen Arabiarrengana etorri nintzela Mahoma pertsona bezala, zeren Mahoma eta Biok espirtu berekoak baikara.

Gu izen ezberdinak dituzten pertsonatan zatitzea **-Jesus eta Mahoma, edo Mahoma eta Jesus-**, bikiei deitura ezberdinak ematea bezalakoxea da, batak literatura eta besteak matematika irakasten duelako.

Biok gara **KONTZIENTZIA KRISTIKOARENAK**, biok gara **ZERUKO KONTZIENTZIAREN** indibidualizazioak.

Lurrean izan ginenean, biok hitz egiten genuen Jainko Amultsu eta Bihozbera bakar batez; Jainkoak inspiratutako ezagutza, gure gizatasunak hautematen uzten zigun moduaren arabera.

Kontuan hartu behar da, gu biok mendeetan zehar jarauntsitako sineskera tradizionalak guztiz baldintzatutako gizakiak ginela. Beraz, guri inspirazioa etorri zitzaigun beste ideia batzuk zituzten gogamenen bidez.

Kontatu dizudanez, inspirazioa gogamen garbi eta desprogramatu batera bideratua ez bada, beti bere gain hartuko ditu haurtzaroko baldintzapenetik datozen uste sendoak. Inspirazioaren eragina eteteen, kontrola hartzen duen gogamen arrazionalak ezagutza eta ikuspegi berriak azaltzeari ekiten dio, giza gogamenak harrez gero onartuak dituen terminoen arabera.

Baina, esan dizudan legez, ia nire bizitzaren hasieratik bihurri hutsa izan nintzen, eta Judutar sineskerak ezin nituen onartu. Ni ontzi garbia nintzen, erabat harkorra, gogamen zabalekoa, non **EXISTENTZIAREN EGIA** isur zitekeen basamortuan, eta horrek **UNIBERTSOKO KONTZIENTZIA** argi ikusten uzten zidan.

Orain gure pertzepzio edo hautemateak maila gorenekoak dira -GOGAMEN, BIZI eta MAITASUN BAKAR BATEKOAK gara, eta berdin-berdin luzatzen diegu eskua Musulmanari, Judutarrari, Kristauari, Budistari, eta jende guztiari, ateo zein agnostiko izan. Horiei guztiei deitzeko dugun arrazoi bakarra zera da: ikuspegi inspiratua ekartzea, zeinak ezagutaraziko baitie azpian duten oinarrizko senidetasun espirituala; eta horrek bultzatuko ditu pentsamendu berriak pentsatzera, eta -bihotzetan barkamena dutelarik- batzuk eta besteak bakean erlazionatzera, eta gero bizitzak modu ezberdinetan bizitzera **IZATEAREN ITURRITIK ARGIA** atereaz.

Biok KONTZIENTZIA UNIBERTSALAZ hitz egingo genizuke zuri, gaurko garai zientifiko honetan bizi zaren horri, ulerkuntza zientifikoan urrutira iritsi zarelako eta honez gero jaso dezakezulako Mahomak eta biok esan nahi duguna.

Biok batera diogu -entzun adi-adi: Gu -eta zu lurrean- , denok bat gara gure izatearen erro berberetan. Gainerakoei sortzen diezun edozein suntsipen, zeure buruari ere ari zatzaizkio ezartzen.

NIK -GUK- argi esan behar dugu, **GU** zentzuzko, borondate oneko eta bihotz oneko jende guztiarengana etorri garela, kontuan hartu gabe bakoitzaren arraza edo erlijio-sineskerak. **Besarkatzen zaitugu, maite zaitugu, eta erakartzen zaitugu gure babes eta segurtasun-kontzientziaren geruza barnera.**

Jendeak lurrean une honetan dituen arazoek jakitun gaude. Jabeturik gaude jada zenbait mende dirauen gatazkaz -Judaismoaren eta Islamaren artekoaz-.

Baina, haustura horrek ez du zerikusirik GUREKIN. Euren haserreek sorgor uzten gaituzte. Zergatik arriskatu ongizatea eta etorkizuneko zoriona, zentzurik -eta beraz baliorik- ez duen zenbait kontzepturen alde borrokatuz? Izatez, eurak aukeratutako erlijioari atxikitzen zaizkio, bihotz sakonetan denak ari direlako eskua luzatzen **BEREN IZATEAREN ITURRIARI**, nahiz eta izen ezberdinak erabili **IZATEAREN ITURRIARI** deitzeko.

Gizabanako judu batzuk 'duinki' bizitzeko borrokez jabetzen gara biok, eta egunean zehar Ala gurtzen duten islamdar batzuen ahaleginak ere ezagutzen ditugu; eta badakigu egiten duten eta lortzen duten guztia, beren alde lan egiten duen Ahalmenari egozten diotela. Halaber, ezagutzen ditugu Jesusen odolagatiko Salbazioan sakonki sinesten duten kristauak, 'onak izatera' iristeko ahaleginak egiten dituztenak; baina inoiz ez dute lortuko sineskerak zatitzen dituzten bitartean.

Elkarren aurkako erasoek gaurko kontzientzia mundialaren zurrumbiloa behin erabat agortuz gero, ziurtasun osoz, helduko da eguna Musulmanak, Judutarrak, Kristauak, Budistak, eta Hinduarrak elkartzeko dituen; eta orduan erlijio sineskeren ezberdintasunei uko egingo diete, eta herri bakar baten gisa uztartuko dira **ZERUKO KONTZIENTZIARI** eskerrak emateko; **ZERUKO KONTZIENTZIATIK** hartu baitute beren izatea eta **BERARENGANDIK** etorriko baitira etorkizuneko bizitza eder eta inspiratuen mugagabeko bedeinkazioak. Eta elkarren interesa izango dute.

Denek batera oinarri zaharren gainean eraikiko dute eta zera esango dute: 'inoiz ez bedi berriz horrelakorik gerta jende artean, zeren eta, badakigu gure existentziaren erroan bat garela benetan'.

'Nik zuri sufriarazten dizudanean neu ere murriztua naiz Zeruko Bizian, eta horren ondorioz, gero neuri etorriko zait oinazea atzetik.' **Guk eta SENITARTEAK -KONTZIENTZIA KRISTIKOAREN** baitan-

jabetuta gaude guztiez: Budisten eta Hinduarren, Taoren jarraitzaileen, Philipinetako kide espiritualen, eta herri guztietan diren gainerako sekta eta erlijio-diziplinen jakitun gaude erabat; horiek guztiak izanik **IZATEAREN ITURRI UNIBERTSALAREN** oreka -une batez bada ere- erdiesteko eta ukitzeko helburua dutenak.

GUZTIEN kontzientzia dugu. Denok zaudete gure Maitasun Unibertsalak, Gupidak eta Ardurak inguratuta. Guretzat denok zarete garrantzi handikoak, sineskera edozein izanda ere, zeren denok BAT baitzarete zeuen izatearen erroan - zeuen arimak bat eginik daude Zeruko Kontzientzian.

Bat eta DENOK, bateraturik zaudete eta bat zarete arima mailan, IZATEAREN ITURRIAREN baitan.

Euri tanta bat eskuaren ahurrean jasotzen baduzu, ZURE eskura erori delako eta lurrera erortzen ari den euritik aldendu delako, esan al daiteke tanta hori, inguruan ari duen gainontzeko euritik 'izatez' ezberdina dela konposizio kimikoan, garbitasunaren kalitatean edo indarrean?

Zure tanta uki zenezake tinta berdez eta berde koloreko bihurtu, baina esan liteke tanta berdea erabat ezberdina dela une horretantxe egiten duen gainerako euritik?

Zuk, zentzuduna, borondate eta bihotz onekoa, zintzoa eta benetakoa zaren horrek, erantzun ahal izango duzu: 'ez, euri tanta ez da ezberdina. Berdin-berdina da kalitatean, eta izatean, gainontzeko euria bezalakoa da; ezberdintasun bakarra tinta berdea, gorria edo urdina erantsi izana da. Beraz, inguruko euria baino zerbait gehiago bihurtu da, baina nire eskuan dagoen euri tanta oinarrian euria bera da.'

Zu, zarena zarela, ez du axola larrua zer koloretakoa duzun, zeure burua eguzkitik babesten duen eta hornitzen duen ilea nolakoa den, zeure buruak edo gorputzak zer itxura duen, hitz egiten duzun hizkuntza zein den, pentsatzen dituzun pentsamenduak zein diren, erabiltzen dituzun hitzak zein diren, zure sineskeren eta pentsamenduen ondorioz egiten dituzun aktoak eta ekintzak zein diren -ez du axola zein diren zure KONTZIENTZIA GIZA eta FISIKOAREN EZBERDINTASUNAK- gainontzeko guztiak bezalakoa zara zu, kalitate berekoa, **IZATEAREN ITURRI** beretik sortua, amaigabetasunean ahalmen bera daukazu eta gaitasun espiritual berberak aspektu guztietan.

Berdin dio zer zaren: Musulman, Arabiar, Errusiako Judu, Amerikar-Kristau, Tibeteko Budista edo Indiako Hinduista; zuen arteko ezberdintasun bakarra zera da: bakoitzaren baitan ezarriak izan diren gehigarriak. Gehigarri horiek, zure arrazatik eta ahaidetasunetik, ingurutik, familiako hazkundetik, familiaren baliabide pobre edo aberatsetatik, heziketatik eta bizitza aukeretatik datorren genetikaren ondorioa dira.

BAINA DEN-DENAK azalekoak dira.

Zuk arima deitzen duzun **Errealitatea** ezkututzen dizute; tinteak zure esku ahurreko ur tantari dagokion egia ezkututzen duen bezala. Zure arima zuzenean Zeruko Kontzientziatik dator; eta berbera, jatorrizkoa eta gardena izaten jarraitzen du, eta Zeruko Kontzientziari atxikia gainerako arima guztiekin batera, nahiz eta jaiotzetik arima estali eta herdoildu duten gehigarri horiek guztiek.

Zera honetaz ere ohartu beharra daukazu: mundu guztia jaiotzen dela giza gaitasun ezberdinekin, jaiotzean ezartzen zaizkion gehigarriak baliatzeko. Arima bakoitzak erabiliko dituen giza gaitasunak, aurreko bizitzetan lortutako aurrerapen espiritualaren arabekoak izanen dira.

Pertsona batzuek lortzen dute desabantailen, depresioen edo itxaropenik ezaren zulo sakonetatik ateratzea, eta konfidantza eta begirune maila altuak izatea, eta eragin handia izaten dute beste batzuegan. Beste batzuk, ordea, abantailez, aberastasunez, aukerez eta talentuz beterik dauden ezin eutsizko garaietatik erortzen dira; harik eta, etsipen eta depresioz, droga kontsumoz, hilketaz, bortxaketaz eta dena delakoaz beteriko zulo beltzeraino jausi arte. Hala ere, egin duzunagatik -edo ez duzunagatik- ere, zure aukerengatik -edo aukera ezagatik- ere, oinarri oinarrian gainerakoen 'izate' eta gaitasun berekoa izaten jarraitzen duzu. GUZTIAK pixkanaka igo daitezke gaur egun duten edozein kontzientzia-maila espiritualetatik, Zeruetako Erresumetan den **ZERUKO KONTZIENTZIAREN** mailaraino.

Gutun hauek **EXISTENTZIAREN EGIATZAT** onartzen dituzun neurrian, eta **IZATEA EMAN ZIZUN HAREKIN** harremanetan eta harmonian jarriko zaituzten printzipioen arabera bizitzea egunero bilatzen baduzu, ziurrenez aurrera egingo duzu, eta une honetan zeure buruari ipinitako helburu espiritualik gorenak erdietsiko dituzu.

Denak igo daitezke **EGIA** oso-osorik onartuko duten puntu goreneraino; egizu lan zure kontzientzia pertsonala arazteko, **ZERUKO KONTZIENTZIA** zeureganatzearen, eta zeu, **Zeruko Kontzientziaren Ahalmenez** betetako gizakia egitearren; horrela **Ahalmen** hori irradiatuko duzu zure ingurualdean eta halabeharrez munduan zehar.

DENAK DIRA garrantzitsuak beren ingurualdean.

Aitak edo amak barne ikuspegia falta du, baldin eta sentitzen badu ez dela estimatua familiaren alde egiten duen guztia, sentitzen badu ez duela eragiten familiako bizitzan, ez zaiola inoiz entzuten, ez dela errespetatua eta maitatua, sentitzen badu berak ez duela garrantzirik etxetik edo lanetik kanpo eta bere falta ez lukeela inork sumatuko.

Pertsona orok, dela gizonezko, emakumezko, aita, ama, adiskide, langile edo enpresari, eragina izaten du bere inguruan. Alde egingo balu, giroaren ehunean joandakoaren hutsunea egongo litzateke, galera egongo litzateke, eta hutsartea betetzeko denbora beharko litzateke beste baten etortzeaz eta jarduera berriez.

Hutsartea uzten dute atzean handienaren Ahotsak eta Ahalmenak, ongiaren Egileak, edo zorua edo lorategiko bideak garbitzen dituen langilerik apalenak. Bakoitzak toki berezia hartzen du inguru osoan. Bakoitzak bere talentua, bere nortasuna, gauzak egiteko modu propioa, eta tratatzen duen jendearengan duen berezko eragina dakar, bizi eta lan egiten duen tokian. Ezinbestekoak dira euren bizilekuetan.

Inork ezin dio kendu pertsona bati duen garrantzia, pertsona horrek bere buruari balioa ukatzen ez dion bitartean.

Nahiz eta pertsona bat elbarriturik jaio, berebiziko garrantzia duen tokia ere badauka familian eta inguruan. Batzuetan garrantzi handiagoko maila bereganatzen du, osorik, eta perfektu jaio izan balitz baino. Bere lorpenek mirespena eta begirunea pizten dute.

Zuk inguruan zabaltzen duzun eragina guztiz zure izateko nahiaren arabera da, jarduteko eta

borondate ona irradiatzeko duzun nahiaren arabera, zure aukerak gehien baliatzeko nahiaren arabera, eta besteentzat berezia izateko nahiaren arabera zuk haiek hobeto sentiaraztean zurekin harremanetan jarri aurretik baino. Une oro egiten den BORONDATETIK sortzen da egoera bakoitza. Batzuk borondate-indar handiz jaiotzen dira eta beste batzuk txikiagoz, baina pertsona bat guztiz ohartzen denean **BORONDATE-INDAR** oro **KONTZIENTZIA UNIBERTSALETIK** hartzen dela, eta **BORONDATE-INDARRA** areago(tu) daitekeela nork bere baitan duen **IZATEAREN ITURRIARI** deituz eta areagotzeko eskatuz; pertsona hori konturatzen hasten da borondate-indarrak batere mugarik ez duela. **KONTZIENTZIA UNIBERTSALETIK** bertatik atera daiteke bakoitzak duen zenbateko sinesmenaren arabera.

Genero, arraza, nazio, erlijio edo bitarteko nahiz dirusarrera-maila guztietako pertsona oro, pobretik erregeraino, garrantzi berekoa da ORAINGO unean eta egunaren azken unean.

Benetako ezberdintasunak soilik sortzen dira bakoitzak ematen duenetik bere baitatik une honetan, hurrengo unean eta eguna amaitu artekoan.

Erregea edo Presidentea gogoratua izan daiteke bere ontasunagatik, bere herriari ekarri dizkion onurengatik, edo jendeari ezarritako miseriagatik. Halaber, familia txiro batean jaiotako gizaki bat, behar bada, trebetasunak maila altu bateraino garatu ez dituen, baina inguruko zerbitzuan dena eman duena; azkenean ahaideek eta lagunek ohoratua izango da -eta hurrengo bizitzan uzta jasoko du Errege edo Presidente gisa.

Aipatu pertsonak 'bizia' emango du ingurura; bizi-indarraren izaera zera delako: baldintza gabeko maitasuna, zerbitzua, lana eta harmonia, besteari behar duen guztia emanez beharrak ase ditzan.

Egunero, zure bizi-indarra gaixoei kikara bat te emateko soilik erabiltzen baduzu, orduan utzi bizi-indar hori bere formarik altuenean erabilia izan dadin: prestutasun handiz joan zaitez bezeroengana irribarre beroa eskainiz tea ematera borondate onez, adeitasunez eta pertsonak sendatzea opatuz. Eta horrela te-zerbitzari bat sendatze eta goratze tresna distiratsu bihur daiteke.

Te-zerbitzariak isilik Zeruko Kontzientziaren eragina zenbat eta gehiagotan eskatzen duen bere kontzientziarentzat, orduan eta handiagoa eta sakonagoa izango da bere bizi-indarraren irradiazioa pazienteentzat. Baliteke, gaixoak gertatzen zaienaz ez jabetzea. Baina aipatu zerbitzariak edo zaindaria artatutako gela bateko gaixoek bizkorrago berreskuratuko dute osasuna, begiratu eta hitzik esan gabe eta pentsamendu maitagarririk gabe tea ematen dien batengandik jasotzen dutenek baino.

Ez; lan bakoitza, une bakoitza, sakratua eta ederra izan daiteke, eta norbera eta gainerakoak igotzen eta sendatzen ari den Zeruko Kontzientziaren bizi-indarraren eraginarekin distiratsua ere izan daiteke; baldin eta ohartzen bada norbera Zeruko Kontzientziaren bitartekaria dela; zeina baita sendatze osoa, babes osoa, eta pertsona bakoitzaren beharren asetahun osoa.

Pertsona bat, zoruak garbitu eta ohepeko ontziak husten dituen barne, ezagutza hau izanez gero, gela batean sartu eta pertsona garrantzitsuen bihur daiteke, behar bada, ongiaren banatzaile bakarra ontziok banatzen ari diren sei pertsonen artean. Aipatu pertsonak indar areagotze bat eragin diezaiotke gaixo

bakoitzari. **Pertsona bakoitzak begietatik bizi- indar itzela irradiatzen du begiraten dien guztiengana; horretaz konturatzen baldin bada, jakin dezake bere begiradak, begirada sakon edo kontenplazio irribarretsu horrek, onura ekartzen diola jasotzen duenari.**

Zeren eta guk -zuk eta **NIK, KRISTOK** -pentsatzen eta egiten duguna kontzientzia-egintza bat da, eta kontzientzia bizi-indarra da. Gure gogamenen jarduerarekin, zurea eta **nirearekin**, gure kontzientziari, gure bizi-indarrari forma ematen diogu ingurua bedeinkatu edo madarikatzen duten forma ezberdinetan.

Zure, eta Mahoma eta Nire arteko ezberdintasun bakarra zera da: Mahomak eta Nik besteei irradiatzen diegun pentsamendu eta sentimendu mota. Biok, munduari bizia ematen dion kontzientziaren energia irradiatzen dugu.

Eta zuk, zer irradiatzen duzu zeure munduan? Gogora ezazu berriz, Palestinan izan nintzenean, larritasun une batean nola madarikatu nuen pikondoa eta nola zimeldu zen sustraietaraino. Pixka bat geroago, bai Erromatar soldaduek bai Apaiz Juduek madarikatua izan nintzen neu ere. Ni neu ere zimeldua izan nintzen sustraietaraino gurutzean hil baino lehen. Kontuz zer egiten diezun besteei! Eta ziur egon zaitez gauza bera jaso nahi izango duzunentz.

Norbaiti kikare bat ur maitasunez emateak bedeinka eta igoaraz dezake jasotzen duen pertsona hori, baina gogo txarrez emateak larderiaturia eta garrantzi txikikoa sentiaraz dezake, pixka bat ahulago eta gogogabetuago.

Zein paper jokatzeko duzu zeure giroan?

Zabaltzen duzun maitasunagatik eta borondate onagatik ohoratzen eta onartzen al zaituzte lantokia zapaltzen duzunean? Konturatu al zara benetan zer den garrantzizkoa bizitzan?

Ipini al diozu zeure buruari plan espiritualik, hurrengo dimentsio ederrera igaro baino lehenago lortzeko moduko helburu espiritualik?

Egongo al zara nahikoa araztuta eta konprometituta baldintzarik gabeko maitasunarekin, kontzientzia espiritualaren mailarik gorenetan sartzeko?

Ala oraindik zure helburuak lur mailakoak dira?

Galdeiozu zeure buruari: zer paper jokatu nahi duzu benetan zeure inguruan? Zein da zure helburu espiritualak?

Hori bezain garrantzitsua: Zeintzuk dira besteenganako dituzun jokabideak? Nagusitasuna edo eskusibotasuna ala jabetzen zara jende gehiena ahalik eta onena egiten ari dela dituen talentuekin?

Zure gaitasun guztia erdiesteko, kontuan hartu behar duzu, ez estatusak edo mailak, ezta aberastasunak ere, ezin diotela mugarik ipini munduan erabil dezakezun ahalmenari. Dituzun muga bakarrak zure jokabideak dira, eta jokabideok sortzen dituzten pentsamenduak.

Erregearen, presidentearen, generalaren, -edo zerbitzari nahiz soldadu apal baten- gogamenetik irradiatzen den bizi-indarra, batena bestearena bezain indartsua eta ongiaren sortzailea da inguruan; baldin eta bakoitzak pentsamenduak diziplinatzen baditu, baldintzagabeko

maitasunaren eta Zeruko Kontzientziaren frekuentzia espiritualekin bat egin arte. Areago, horrelako pentsamenduek sartu eta indar berria ematen diote munduaren kontzientzia-indarrari berari. Pertsona bakoitzak berrindartu egiten du munduaren pentsamendu espirituala, pentsamendu horri bere pentsamendu espirituala eransten dionean.

Faktore bakar batek determinatzen du gradua, zeinarekin ematen baitira bizirako edo gaixotasunerako joerak. Faktore hori -gauzatze eta ulertze-maila espirituala da, hain zuzen ere, **IZATEAREN ITURRITIK** pertsona batek lortutako maila espirituala.

Beraz, auzoan topatzen dituen guztiei bihotz ona erakutsiz eta guztientzat onuragarria izanez, pozik zaborra jasotzen duen gizona, argi distiratsua da bere mundu txikian. Eta diruzalea, lanera joateko umore txarrez mantsiotik irteten duen maila altuko aberatsa, osin iluna da hurbiltzen zaizkion pertsonen negatiboki senti dezaketena.

Zarena zarela, daukazuna daukazula, edo bizitzan daukazun maila gora behera, ezin zaio mugarik jarri zuk garatzeko duzun gaitasunari. Zure izatearen handitasunaren eta aintzaren ahalmenak ez du mugarik. Zure mugari bakarra da zure **IZATEAREN ITURRIARI** buruzko meditazioan erabiltzeko prest zauden denbora eta energia kopurua, zuk giza-kontzientzia irekiz **HAREN** baitan sartzeko eta **HURA** zeure gogamenean jasotzeko.

Beraz, erlijio buru hori, zeuri diotsut! Gur egiozu zeure kongregazioari, ez dakizulako zer iluminazio eta aurrerapen espiritual ari den gertatzen, ustez apalki eta sozialki garrantzi txikikoak diren horien gogamenetan.

Erljio buru horrek, utziozu beste erlijio batzuk kritikatzeari, ez dakizulako erlijio horietako partaideek zenbateko ezagutza espiritual, hautemate eta iluminazio maila lortu ahal izan duten.

Erljio buru horrek, uler ezazu zuk zeuk! Zure **Errealitatearen** hautematea zenbat eta aurreratuagoa izan, orduan eta aurreratuagoa izango zara espiritualki.

Zure mundu materialaren mailatik haratago dagoena ulertzeko modurik ez baduzu, zu erlijiozalea izan zintezke, baina ez duzu kontzientzia espiritualik.

Benetako ideala, egiazko xedea, helmugarik gorena, zera da: gauza guztien atzean eta barruan den eta horiei izate indibiduala ematen dien *Errealitatea* ulertzea eta esperimintatzea.

Errealitateari deitu ahal zaio: Jainkoa, Ala, Jehova, Adimen Infinitoa, Zeruko Gogamena edo Zeruko Kontzientzia edo Tao. Izen horiek guztiek zure IZATEAREN ITURRIA - zure ITURBURU SORTZAILEA esan nahi dute.

EZIN DA IZAN HORI BAINO XEDE HANDIAGORIK: ulertzea eta esperimintatzea gauza guztien atzean eta barnean den ***Errealitatea***; **zeinak** izate indibidual oro sortzen, eusten eta sostengatzen duen. **Helburu horixe aurkeztu zuten lurrera etorri ziren Maisu-Maistra iluminatu guztiek.** Denek partekatu zuten ikuspegi bera, gauzatze eta ulertze bera. Aipatu Maisu-Maistrak oso estimatuak izan ziren, baina beren jarraitzaile gutxik ulertu zituzten haien irakaspenak. Bakoitzak bere erara ulertzen zituen Maisu edo Maistraren hitzak. Bakoitzaren interpretazioa bere baldintzapenetik eta aurreritzietatik sortu zen.

Une oro gogora ezazu zure bizitza pertsonalean dituzun pentsamenduek, hitzek eta egintzek zure etorkizuneko bizitzarako interesa izateaz gain, edozein unetan zurekin erlazionatzen den jendeari ere eragiten diotela.

Zertan laguntzen duzu zuk zeuk, -enpresari nahiz langile izan- bizitza irabazten duzun negozioaren funtzionamendu onean, dela lantegia, dela etxaldea, dela denda edo lan-bulegoa? Ongizaterik edo sentimendu onik ematen al diezu zure enplegatuei edo lankideei? Zer ematen diezu? Zer egiten duzu eraikin osoaren alde? Eraikinaren alde? Beharbada harriturik galdetuko duzu.

Baina berriz diot: -Zer egiten duzu zure eraikinaren alde, zure ibilgailuen alde, zure merkatal-enpresa osoaren alde? Dena, adreiluak, morteroa, altzairua, kristala, papera, metala, neumatikoak, motorrak, eta gasolina; den-dena kutsatzen du eguneroko zereginetan jardutean askatzen duzun kontzientziak. Horregatik, pertsona batzuek suntsiketa-arrastoa uzten dute atzean, zeren umore txarreko kontzientzia haserrekorra eta kritika suntsitzailea baitute; eta beste batzuek berriz, beren jabegoak ukitu gabe eta itxura berria dutela urte askotan gordetzen dituzte, egunero haintzat hartzen eta zaintzen dituztelako.

Dena, zure lurrean, ikusgai egin den kontzientziaren energia da; eta hori, bizigabeko materia edo plasma bizia duen forma 'solidoa' izan daiteke. Zure pentsamenduekin elikatzen edo suntsitzen duzu inguruan duzuna.

Zer egiten ari zara zure familian, etxean, inguruan? Zer egiten diezu?

Marmartia al zara? Iraintzailea, suntsitzailea lanarekiko eta besteekiko pentsamenduetan? Orduan ziur egon zaitezke atzean kontzientzia suntsitzailearen aztarna txiki bat uzten ari zarela, eta horrek barneratu, busti eta blaitzen duen oro herdoiltzen lagunduko du.

Baldin eta bihotz alaiz maitatzeko, onartzeko eta lan egiteko nahian zentratzen bazara, orduan, nora ere zoazen, isurtzen jardungo duzu indar, bedeinkapen eta hazkunde handiko kontzientzia.

Lurrean Palestinan nintzelarik, nirekin tratatzen zuten Judu ortodoxoek, hain jokaera-kode estuak sinesten eta gordetzen zituzten, ezen ankerkeriarekin muga egiten zuten. Lege tradizional horiek zapaldu egiten zuten; lotsagarriak, murrizgarriak eta irrigarriak ziren. Herri honetara zera ekarri nuen jendearentzat: eurentzat haraindikoa zen 'Aita' betiereko baten ikuspegi berria; **Zeina**, hala ere, presente zen toki guztietan eta beti gizakien beharrez jabetua. Eta halako maitasun unibertsala erakusten zuen, ezen jendea ziur egon zitekeen bere beharrak asetzea beti '**Aitaren Nahia**' zela.

Jendeari begiratzeko esan nion: ingurura, landara, ardiak eta ahuntzak baketsu bazkatzen ziren mendixketara, arrainez beteriko zingiretara, airean hegan zuhaitzetan pausatu eta habia egiten zuten hegaztietara, eta kolore anitzez jantziriko lore ederretara so egiteko, alegia.

- Begira -esan nien- uler ezazue dakusazuena. Gauza guztiek beharrak dituzten mundu bat ari zarete ikusten, eta zer guztiek beharrok aseturik dauzkatena.

- Nola jar dezakezue zalantzan ardiak belarretik baino ez direla bizi ikustean? Zer dauka belarrak larrua, hezurra, odola, eta haragia elikatzeke, eta kumeak egin ahal izateko? Ez al zarete hornidura zoragarri baten lekuko?

- Begira txorien beharrei! Zein modu harrigarritan hornitzen zaien behar dutenaz! Zuhaitzetan babesa eta indartzeko haziak ere badituzte; eta etxearen, janarien eta jantzien beharra duen jendeari **'Aitak'** mundu osoa eman die, behar guztiak bertan ase ahal izateko.

Iluminatua edo goi-argitua izan ondoren, **Mahomak** Espiritu Unibertsal berbera nabaritu zuen: izatearen baitan bizi dena, eta aldi berean gauza guztietan dagoena eta ari dena. **Gu -Mahoma eta Biok-**inspiratutako **Egia** berberaz mintzatu ginen gure herrikideekin, eta galdera mota berak egin genizkien.

- Den-dena ezagutzen duen **'Aita' -Ala- Zeruko Kontzientzia**, ez al da izango zuen beharrik sakonenen jabe ere; hots, zuen maitasun, osasun eta oparotasun beharren jabe? Nola egon zaitezke zalantzan? Izan ezazue fedea eta zuen behar guztiak aseak izango dira fede horren arabera.

Zuen **fedezak** kentzen dizue energia zuen gorputzetan, erlazioetan eta bizitzan, **'Aita' - 'Ala' - 'Maitasunaren'** isuri naturaletik aldentzen zaretenean.

Maiz etsita, lurrean Jesusengan haragitua nintzenean zera oihukatzen nuen: 'Nahiago nuke kontatzerik, erakusterik, eta ikusarazterik banu **'Aitak'** nolatan ezagutzen dituen zuen beharrak! Nahiago nuke erakusterik banu nolatan zuek zeuek laguntzen duzuen zuen etorkizuna eta inguruan dituzuen guztien etorkizuna ere osatzen!'

Zuei, ereiten duzuen benetan jasotzen duzuela ikusaraztea posible balitz, behintzat! Nik Palestinako basamortuan nengoenean ikusi nuen bezala, zuek **existentziaren egia** ikusterik bazenute, orduan jakingo zenukete zuen pentsamenduak eta ekintzak tamainaz eta indarrez hazten direla egunez egun, eta kanpo-itxura hartzen dutela, zehazki landareen haziak lurrean sartu eta hazten diren bezelaxe, gero eta forma handiagoak hartuz zurtoinak, hostoak eta fruituak bezala, egunean zehar, egunero egunero.

- Nahiago nuke erakusterik banu benetan zein inportantea den eguneko segundo bakoitza zuen bizitokiaren ehunean, lanean eta herrian!

- Biziki ikusarazi nahi dizuet zuen pentsamenduak on eta gaitz guztien iturria direla. Zuen on eta gaitz ororen oinarria bera dira. Gaitzen bat heltzen bazaizue ez begiratu auzokoari nondik datorren ikusteko, so egiozue zeuen bihotzari berari noiz izan zenuten norbaitekiko gorabeherarik modu suntsigarrian - kalumniagatik, egiaren faltsutzeagatik, arbuioa edo kritikagatik-. Horixe izan zen zuen oraingo atsekabe edo nahigabearen sorburua.

- Esan dizuete begi bat atera behar diozuela begia kentzen dizuenari, baina nik diotsuet hori zentzugabekeria dela. Begia begi-zulotik ateratzen badizuite, eta zuek modu berean aurkariari kentzen badiozue, beharbada laster eskurik eta hankarik gabe egongo zarete. Hobe duzue gogamena eta bihotza **Aita - Ala - Zeruko Kontzientziari** igotzea, eta laguntza, sendabidea eta edozein ezbehar handiagotik babesa eskatzea!

- Eta otoitz egizue aurkariaren alde ere, bere aurka duzuen edozein pentsamenduk soilik zoritxar eta atsekabe gehiago ekarriko baitizue. Barka ezazue, egizue otoitz bere alde, eta zeuentzat ere bedeinkapenak erakarriko dituzue. Ez **Aitari - Alari** atsegin emateagatik edo egin behar dena egiteagatik, baizik eta zuen kontzientziak bedeinkazioak erakarriko dituelako zuen esperientzietara.

Besteentzat bedeinkpenak eskatzean, zeuen burua bedeinkatzen arituko zarete. Baina hori ez bedi izan zuen arrazoia, bestela zuen buruarenganako maitasunak ustelduko baitu bedeinkapena.

- Beti, edozein egoeratan, zeuen burua mehatxatua ikusten duzue, gelditu, lasaitu, itzul zaitzete **Aitagana -Zeruko Kontzientziara-** laguntza eskatzeko, eta so egiozue askapenari! Ziurtasun osoz etorriko da.

- Mundu osoari -baita etsai deitutakoei ere- zuen bizitzan eta herrian maitasuna eta borondate ona irradiatzeko **Aita - Ala - Zeruko Kontzientziaren** babespean bizi bazarete, kontraesan beldurrik gabe diotsuet, inoiz ez zaretela erasotuak izango, ez duzuela tristurarik ezagutuko eta sekula ere ez zaretela ondoezik edo zoritxarren baten menpe egongo; zeintzuk giza-kontzientziak sortzen baititu.

- **Argi eta Maitasun-**geruza batean bilduta egongo zarete; **Zeruko Kontzientzia** zuen gogamenen, gorputzen eta bizitzaren baitan jariatuko da. Baliteke zuen inguruko jendea gaixotzea, eraso batek eraistea edo izuak hartuta 'itotzea'; baina zuek bide beretik egingo duzue aurrera eta jakingo duzue inork ez duela giza-gaitasunik txikiena ere **AHALMENAREN** aurka **-zuen IZATEAREN ITURRIAREN** kontra, zeinak zuen izatea eta bizia eman baitizue lurrean.

- Inor ezin da ausartu baieztapen hori ukatzera; zeren hori ukatu nahi duen inork ez baitu nahikoa kontzientzia espiritual maila; zeinetan halako babesa, gertaera arrunta den. Beraz, nola uka dezake aipatu baieztapena?

Eta **egia** bera dakart lortu dutenentzat kontzientzia espiritual maila, zeinarekin hautematen baita **Aita - Ala - Zeruko Kontzientziaren** unibertsaltasuna eta **Berak** denera eta denentzat irradiatzen duen maitasun ugaria. Horrelako jarraitzaile espiritualek -maitasun horren baitan bizitzeko ahaleginak egiten dituztenek eta irradiatzen dutenek-, pozarren baieztatuko dute esan dudana egia dela. Mirarizko babesa eta beharren asetasuna esperimendatuko dute, eta jakingo dute **Aita - Ala - Zeruko Kontzientziaren** borondate onaren eta maitasunaren 'eguzkian' lasai daitezkeela. Zera onartzeaz ere pozik egongo dira: **Zeruko Kontzientziak** - Jainkoa, Yahve, Absolutua, Mugagabea, edo Ala izenekin deitutakoak - beti **Zeruko Kontzientzia** unibertsala izaten jarraitzen duela, zeinak den-dena barneratzen baitu zenbait naziok erabilitako terminologia ezberdinak izan arren. Jarraitzaileek halako iratzarraldi espiritual-maila lortuko dute, non hauteman baitezakete jende guztia -sortze oro berez- bat bakarria dela bere izatearen sustraian; kolore, hizkuntza, sineskera oro eta mota guztietako egintzen atzean. Gizakiak eta inurriak sorburu berak dituzte **KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN** orekaren baitan.

HAUXE DA BENETAKO ASKATASUNA. Askatasun bakarra.

Zure **IZATEAREN ITURRIA** zure baitan, gainean eta inguruan dago, eta benetan zure gogamenean eta gorputzean isuri daiteke **OTOITZARI ERANTZUN ZUZENAREN** ondorioz; harik eta hori guztia ulertzeko eta onartzeko prest egon arte, lurreko giza-kontzientziaren ondoez guztien menpe egongo zara. Lapurtzen duzue, galdu ere egingo dituzu gauzak. Borrokatzen, zauritzen, ebakitzen eta hiltzen duzue, ebakia, zauritua edo hila izanen zara gorputzez edo espirituz. Gerra bat hasten duzue, borroka luzea eta garratza izango da. Zeu zara pairatzen duzun zoritxar guztien jatorrizko iturria.

Zeure esku dago etorkizunean zein modutan bizi nahi duzun aukeratzea. Zeuk aukeratzeko duzu zein modutan biziko zaren zure kontzientzia aldatzean, aurkakotasunetik mundu guztia berdintasunez maitatzera eta onartzera.

Beste bati eragin nahi izango zeniokeen mina eta kaltea imajinatzen baduzu, zure pentsamenduak zure etsaia atzemango du eta barrena jango dio zure asmoaren indarraren arabera.

Ez pentsa zure pentsamendua desegin denik, eta jada ez **denik**. Indar elektromagnetikoan geratzen da, gero forma hartzen du eta errebotatzen du zeu ere zauritzeko.

Kalte asko egin dezakezu zeure pentsatzearekin eta sentitzearekin. Kaltea besteei eta zeure buruari. Beraz, gorde itzazu ongi - zure sormenaren tresnak - eta une oro itzul zaitez **Aita - Ala - Zeruko Kontzientziara**, eta benetako baldintzagabeko maitasunaren aurkako edozein pentsamendurengatik eskatu pozbidea.

Zure otoitz ahalmenaren eta sinesmen zintzoaren arabera -zeinaren arabera igotzen baituzu zure gogamena Zeruko Kontzientziara-, blaituak izango dira zure pentsamenduak bizi berrituz eta maitasunez.

Oraintxe kontatuko dizueguna, guk, KONTZIENTZIA KRISTIKOAN iluminatutakoen -ilustratuen-Senitarteak, biziki garrantzitsua da munduarentzat, oro har. Modu berean hitz egiten diegu - Kristauei, Judutarrei, Musulmanei, Hinduei, Budistei, eta munduko erlijio eta arraza bakoitzari-

Guztiei hitz egiten diegu, den-denek eta pertsona bakoitzak munduan instrukzio honen beharra dutelako, iratzartze espiritual-maila altuagoetarantz mugitzea posible izateko.

Zuen harreman sexual eta pertsonalak -gizon emakumeren artekoak- askoz garrantzitsuagoak dira zuen ongizate osorako, oraintxe imajina dezakezuen bano.

Hurrengo orriotan zehatz-mehatz tratatuko ditugu harreman horiek, guztiz beharrezkoak direlako zuek -gizonak eta emakumeak- zeuen banakotasunaren eta nortasunaren (gizonezko edo emakumezko) oinarritzko errealitateara eta genero ezberdintasunen benetako iturrira esnatzeko. Erabat ulertu behar dituzue zuen gorputzen benetako sorburuak, eta gizonezkoen eta emakumezkoen berezitasunak.

Gorputzak ez dira sortuak soilik organu fisikoekin eta adierazpen sexual ezberdinekin, seme-alabak sortzeko asmoz. Maskulinitatearen edo feminitatearen sorburuak **hartzen dituzte beren IZATEAREN ITURRITIK - KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN orekaren baitatik-**.

(Hau guztia diotsuet **5. GUTUNA** irakurri baino lehen, **GUTUN** hori irakur dezazuen orain zuen sexualitateaz esaten ari natzaizuen kontuan hartuz.)

Beraz, gizon edo emakume baten sexualitatea ez bada erabiltzen **Zeruko Kontzientziaren Asmoaren** arabera -sortzearen jatorritzko egintzan "Big Bang" unean adierazia bezala-; jakina da sexualitateak, seme-alabak sor ditzakeen arren, ez diela gizonei eta emakumeei ekarriko izatearen batasuna, gauzatzea eta jatorritzko asmoaren alaitasun pertsonala. Alderantziz baizik; denbora aurrera joan ahala, sexu harremanak izatez desengainua eta aspertzea ekarriko du, eta horren ondoren bikoteak aurrez sentitutako edozein 'maitasun' agortu egingo da.

Espirituan oinarrituriko gizonak eta emakumeak, ezagutzaz eta ulerkuntzaz, ahaleginak egingo dituzte gizon-emakumeen edozein motatako harremanei dagokien oraingo kontzientzia-egoera gainditzeko; adierazi gabe erlazioak, sexualak edo beste mota batekoak diren. Gogamen eta bihotzetan ahaleginak egingo dituzte helburuak adierazten, zeintzuengatik sortuak izan baitziren modu ezberdinetan. Ulertuko dituzte berezko bulkaden, izaera edo aiurrien eta auto-adierazpen modu ezberdinen sorburuak, eta haintzat hartuko dituzte. **Ezberdintasunak, bestearen ongizatea nabarmentzeko erabiliko dituzte.** Lehia desagertu egingo da. Hori gertatzean, gero eta errezago harmonizatuko dira Zeruko Kontzientziarekin. Eta Zeruko Kontzientziarekin gero eta errezago harmonizatzean, kontzientzia espiritual-maila goragoetara igoko dira.

Une honetan, sexualitatera hurbiltzea oztopo duzue kontzientzian gora egiteko.

Gizatasunari loturik edukitzen zaituzte.

Nik - Guk - ezin dugu nahi baino gehiago nabarmendu ez duzuela zuen existentziaren Egia aurkituko, harik eta 'gizon' eta 'emakume' hitzek benetan zer esan nahi duten erabat ulertu eta aplikatzen saiatu arte zuen bizitzetan, etxeetan eta lantokietan.

Adulteriorik ez egiteko esan dizute. Baina nik zera diotsut: auzokoaren emaztea edo senarra desio duzunean, zure pentsamenduetan irudiak sortzen ari zarela, eta irudiok auzokoaren emazte edo senar horren pentsaeran eragingo dutela. Emaztea edo senarra modu berean zugar pentsatzen hasiko da, edo zure ondoan ezeroso sentituko da zure behar sexuala nabarituko baitu, eta ihes egingo dizu aurrerantzean.

Zure gogamenean dagoena ziurtasun osoz sartuko da munduan. Beraz, ez pentsa atsegin ematen dizuten irudiak amestu eta gogora ekar ditzakezunik, gero beste bati kalterik egingo ez diotelakoan. Horregatik, literatura pornografikoa benetan zuen **IZATEAREN ITURRIARI** eginiko biraozko profanazioa da, sexugalea nahita biziagotzen duen izurrite sexuala da esanezinezko oinazea eta miseria sortuz neska gazteen gorputz, gogamen eta emozioetan, gizon lizunen gogamenean bidez. Egin duzuenak eta une honetantxe egiten ari zaretenak zuen 'zibilizazioa' oraingo suntsiketaren amildegi ertzera eramaten laguntzen du. Ziur egon kontu-garbitze eguna helduko zaizuela zuei, 'inprimaturiko gaitza' zabaldu eta banatzen duzuenoi, eta baita kitzikatzeko erabiltzen duzuenoi ere.

Zuek, mendebaldekoak, Ekialdearen arbuioa irabazi duzue, zuen gainbeherako zentzugabekeriagatik. Erein duzuen horretatik ez duzue ihes egingo.

Eta zuek, ekialdekoak, zuen seme-alaba ederrak erditu eta hazten dituzten emakumeengana dituzuen jokabide gupidagabeen zentzugabekeriatik ez duzue ihes egingo.

Zuetako batzuk, **EGIAREN** ezjakintasunagatik, zeuen asmo eta irabazi egoistengatik, Mahomaren Egia irigarri utzi duzue!

Emakumeak jantzi astunez estali dituzue, eta mugitzeko askatasuna kendu eta Alaren aire librea ukatu diezue jendartera irteteen.

Zein gizon mota erakarriko dute zuen sineskerak eta zentzugabeko jokabide egozentrikoak? Soil soilik,

emakumeenganako inolako sentimendu amultsurik ez duten gizonak. Halako jarraitzaileak ote, lurrean zegoenean Mahoma Profetak erakarriko zituenak? Ez, ezta pentsatu ere! Guztiz jende espiritualizatua baino ez zuen erakartzen berak.

Profetari buruz zer irudi mota ari zarete hedatzen munduko gainerako jendearentzat? Esan egingo dizuet: emakumezkoen maila apalarekin itsuturik bizi den gizon zoro batena, emakumea mundutik isolaturik eta gizonaren jabegotzat jotzen duen batena. Zoriontsua izateko, emakumearen benetako beharrak ikusten ez dituen gizon arduragabearena; haren atsekabeaz konturatzen ez den gizon arduragabearena, **gatibualdi eta mendekotasun egoera batean**.

Gizon horrek ez du zer ikusirik benetako Mahomarekin, Islamaren Profetarekin. Berak, lurrean izan zenean, gurtu eta errespetatu egin zuen sexu femeninoa.

Espeziearen sexu femeninotik atera zuen iluminaziorako bide espiritualetan aurrera egiteko modua. Berak zor handia zien, eta bazekien -gorputzez ezberdinak baziren ere- espirituan berdin-berdinak zirela.

Hain zuzen, ez zen ustegabekoa izan Mahoma lurrera pobre eta ezer gabe heldu izana eta erabateko bertute, aberastasun material eta iluminazio espiritualetako anderea aurkitu izana, honek Profeta mailaraino igotzen lagun ziezaion –horretarako gaituta egongo zenerako-.

Horixe izan zen Mahoma lurrera heldu izanaren helburua: emakumea eskubidez dagokion tokian berriz ezartzea, nagusi zen gizonaren maila bereko kide bezala, alegia.

Ongi hausnartu hori! Argialdiaren ondoren, ni, Jesus pertsonaren baitan, ezkongee egin nintzen halaxe hautatu nuelako, baina hori ez zen oztopo izan inola ere nire beharrei erantzun zieten emakumeenganako maitasunean.

Baina, Mahomak argialdiaren ondoren, emakume asko ‘ezagutu’ zuen; horiekin bizitzen, eta berdintasunez eta maitasunez tratatzen ikastera deitutako baten zeregina izan zuen.

Nire jarraitzaileek -beren helburuak sustatzeko interesengatik- nire lanaren eta irakaspenen berri hautatze bidez eman zuten bezalaxe, espiritualki itsu ziren gizabanako batzuen egoismoak ere distortsioa eragin zien era berean Mahomaren jatorrizko irakaspenei, Mahomaren beraren asmoa inoiz izan ez ziren gehigarri eta interpretazio anitzekin. Horrela, **Maisu handi espiritual** ororen lana estalita geratzen da, giza pentsamenduaren informazio okerrarekin. Egia, gezurkeriek hain ilundua geratzen da, ezen jendea seriooki nahasten baitute eta ezjakintasunaren bekatuan ere erorarazten baitute.

Zuek -baita beste zenbait erlijioek ere- Adan eta Eba Edeneko lorategian zoriontsu bizitzeko sortuak izan zirelako sineskerarekin; eta Ebak, sugeak tentatua izan ondoren, grazia edo babes galdu eta Adan tentatu zuelako sineskerarekin bat egin duzue gero, gizonak emakumea tentatzaile nagusitzat hauteman du.

Gizateriaren ustezko sorburuak ez dira egiazkoak. Soil-soilik alegoriak dira.

Emakumea tentatzaile nagusia izatea ere ez da egia.

Eunukoentzat emakumeak ez du inolako erakargarritasunik. Zergatik? Gizona emakume batekin etzatera

bultzatzen duen zera hori kentzen zaielako. Beraz, norengan dago gizona tentatua izatera bultzatzen duena? Gizonarengan berarengan -zeinari fisikoki kendu ahal zaion- edo, hala ere, bera izaten segitzen duen emakumearengan?

Gizona, hain zuzen ere, hazia landatzeko egina dago. **Beraz, landatu beharra dauka aukera duenean.**

Emakumea, hazia jasotzeko egina dago. Iragan urteetan, XX. mendea baino lehenago, emakumeak sexualki jardueragabeak ziren, gizonak limurtuak izan arte. Orduan, non dago tentatua izatera bultzatzen duen zera hori? Emakumea esnatu eta limurtzen duen gizonarengan ala esnatua eta limurtua izan den emakumearengan?

Gizona, bere gizonetako izaeratik ezkututzen ibili da garbitasunaren izenean, eta bere erorikoaren ardura emakumeari egotzi dio. Jarduera sakratua al da hori? Duina al da?

Horrelaxe jarraitu behar al du?

Zuek zeuen emakumeak jantzi astunez biltzen dituzue, zeuen burua tentaziotik babesteko eta beste gizon batzuek zuen 'jabegoak' ikustea ekiditeko. **GUK** hitz egiten dugu zuekin, 'bekaturik gabekoak' eta 'gogamen hutsekoak' zaretela uste duzuen musulman sinesmenaren jarraitzaileekin, guztiokin. Zuen grina horiek direla eta, guztiz desbideraturik zabilzate gero!

Zuek giza desioen praktikatik babestuta egotean, desioak -besterik gabe- areagotu egiten dira, harik eta modu zakar eta bortitz batez lehertu arte.

Nik - Guk - toki guztietako gizon-emakumeoi diotsuegu benetako Garbitasuna soilik lor daitekeela era guztietako tentazioek inguraturik egon zaitezkenean, eta hala ere, desioaren aurrean hotz geratzea lortzen duzunean, lur-sentimenduen aurrean hotz, lizunkeriak usteldu gabe, eta jabegoak edukitzeko egarritik eta irrikatik libre.

Garbitasunak edo araztasunak, bere forma guztietan, lurreko gose fisiko guztiak gainditzen ditu. Garbitasunak badu, tentazioa zer-nolakoa den ikusteko trebetasuna; eta hori pentsamenduen eta sentimenduen zabarkeria da, zeinak gizonaren eta emakumearen zentzumenak harrapatzen baititu gauza lizunak egin ditzaten.

Benetako pertsona garbiak, bere bizitza-arlo bakoitzean, hauxe baino ez du nahi: giro garbia eta zuzena, maitasun espiritualaren eta auto-adierazpenaren edertasunaren jatorrizko irrikari egokitua.

Horixe da benetako Garbitasuna edo Araztasuna.

Hala ere, ez dago benetako garbitasuna lortzerik, lehenago urte askotako tentaldia sentitu ez baduzu. Zure garapen espiritualaren beharrezko zatia da: sekula ez duzu erdietsiko benetako araztasun maila bat, inoiz larriki tentatua izan ez bazara, eta azkenean ulertzeko gai ez bazara ibiltzeko bide altuago bat dagoela; hots, badagoela nork bere buruari uko egitea (abnegazioa), eta emakume on batez kezkatzeko eta berari benetako arreta eskaintzeko eskatzen dizun bidea.

Desioaren menpeko izango zara eta barne-gatazkan etengabe nahastuta egongo zara.

Beraz, ez saihestu tentazioa, emakumeak - sasigarbitasun egoera artifizialean- estaliz. Aitzitik, gizon eta emakumeok, erantzi arropak, gurtu gorputzak batzuek besteei barneko **ZERUKO KONTZIENTZIAREN** kanpoko forma eder eta ikusgaiak bezala, eta **esperimenta ezazue** benetako garbitasun espiritualak emango dizuen askatasuna.

Jasan ezazu tentazio larria eta -gainditu-! Eraman ezazu gatazka **Zeruko Kontzientziara** eta bila ezazu **Bere ahalmena**, irrika fisikoa gainditzeko laguntzeko; zeren eta horrelaxe baino ez baituzu aurkituko funtsean bila zabiltzan askapena, bake mentala.

Une horretan bilatzen baduzu zure irrika arintzea eta askatzea -irrikari berari amore emanez-, ez da egongo, ez arintzerik, ezta askatzerik ere. Irrika berbera bere garaian itzuliko da, eta berriz ezagutuko duzu gatazka zorrotza. Berriro amore emanez gero, berriz ere etorriko da gatazka, are biziago; eta gatazka, zuk Zeruko Kontzientziaren ahalmenean tinko egoteko erabakia noiz hartuko zain egongo da, harik eta irrika betiko menperatuta geratu arte edertasun sakratua hautematean, hau da, forma fisiko ororen barnean eta atzean den **Errealitatea** hautematean.

Sexuen arteko espiritualitaterik handiena gertatzen da, gizona eta emakumea, biak batera, biluzik eta bakean egon daitezkeanean, arima, gogamena, bihotza eta gorputza elkarren arteko begirune-egoera batean.

Halako espiritualitatean, bata bestearengan sentitzen duen bakarra zera da: maitasuna eta ardura bestearen ongizaterako. Halako MAITASUNETIK eta ARDURA samur eta bihozberatik, gutxi esperimendu duten batasun extatikoa etorriko da, eta, asmorik izanez gero, paregabe gorputz eta gogamen ederreko haur bat sortuko da.

Datozen mendeetan, jendea espiritualki eboluzionatzen hasten denean, bikotekideen arteko horrelako maitasuna ohikoa izango da bere gizatasun-maila bakoitzean; eta une honetan praktikatzen den atsegin fisikoa soilik bilatzen duen sexu berekoi mota hori erabat erdeinagarri ikusiko da, bortxaketa bezain gorrotagarri.

Oraingo honetan, sexuei dagokienez egin beharreko bide espiritualik gorena, honako hautemate hau ezagutzea eta berorretara egokitzea da:

Gizonak eta emakumeak bizitzan betebeharrak bereziak egiteko izan ziren sortuak, beren ezkutuko izaerari egokituak. Gizonak emakumea haurdun uzten du. Emakumearen borondate onik eta laguntzarik gabe, gizona bere azkenetara ondorengorik gabe joango litzateke, bere izenari jarraitzen dion gizakirik gabe, alegia.

Beraz, erabat berdintzat jo behar du gizonak emakumea, baina jakin behar du erantzukizun ezberdinak egiteko sortua dela. Begirunerik handiena, maitasuna eta ardura eman behar dio -une oro- bera erantzukizunei errazago egiteko gai izan dadin; emakumea bera delako forma ikusgaia ematen diona gogamenean sortzen den lehenengo gauzari.

Emakume batek bere gorputzaren baitan, alderik ezkutuenean, obuloarekin bat egiten duen hazia hartzen duenean, mirari bat gertatzen da, non zuk, gizonak, ezertan lagundu ez baituzu, zure haziarekin

gozamen une batean izan ezik. Eta horixe duzu saria.

‘Mirariari’ bere osasuna eta garapen normala izaten lagundu ahal izango diozu, zeinari bizia emana diozun bikotekidearen gorputzaren baitan, soilik etengabe bere ongizatea eta osasuna arretatsu maitatuz gero, eta kanpoko gaitzetik eta kalte emozionaletik babestuz gero. Horixe da zure ardura maskulinoa.

Horrelaxe soilik mereziko duzu bere ondoan geratzea, seme edo alabaren aita bezala.

Horretan huts eginez gero, ez duzu balio umearen aita izateko, eta gizon bezala zeure buruaren aurrean ez duzu baliorik ‘**Aitaren Zeruko Kontzientzia**’ espirituala bizitza fisikoaren baitan manifestatzeko.

Barruan semea edo alaba daraman emakumea zirikatzen duen, arbuioz tratatzen duen eta tratamendu fisiko gogor eta bortitzak eskaintzen dizkion gizona, oinarrizkoena den **Existenziaren Legea** hausten ari da; zeinaren arabera, gizonezkoa eta emakumezkoa elkarturik egon behar baitute beren **Zeruko Izatearen** berdintasunean.

Errespetatuak, maitatuak eta babestuak diren emakumeek era berean, errespetatu, maitatu eta gorputzaren zein espirituaren eraberritzea eskaini behar diote bikotekideari, gizonak emakumeari emateko duen gaitasuna elikatuz. Bikotekidea, laztanduz eta maitatuz, modu arduratsuan elikatzen ez duen emakumeak, kentzen dio haren espiritu maskulinoari, kanpo munduan topatzen dituen zailtasunei aurre egiteko borondate jasangarria. Pozbidea beste iturri batean bilatuko du -gizon edo emakumeengan- edarian edo drogetan- edo etxe barruan isolatuz, erabilgarri ez delarik ez bikotekidearentzat, ezta seme-alabentzat ere. Beraz, gizonek eta emakumeek erantzukizun bera dute batak bestea zaindu eta maitatzeko.

Gizonak, egunero egunero, **Zeruko Kontzientiaren ‘Aitaren aspektua’** familian eta lanean bideratzen ikasi behar duen bezala, **emakumeak** –era berean- **Zeruko Kontzientiaren ‘Ama aspektua’** adierazten ikasi beharra dauka eguneroko bizitzan.

Egia hori ukatzen dutenek ukatua izango dute Zeruetako Erresumetan sartzea, harik eta beren hautemate espirituala handitu, eta -otoitzaren laguntzaz- jarrera aldatu arte. Beren ikuspegia ‘maskulinoaz eta femeninoaz’ duten giza-hautematearen gainetik altxatzean, eta beren lurdesioetatik eta ‘ego’ bulkadetatik haratago ‘izatea’ hartua duten *Errealitate* aldera jasotzean, soilik orduan, berraragitze gurpiletik ihes egin eta betiko Bozkarioaren eta Aintzaren sarrera aurkitu ahal izango dute.

Kultura baten barnean, emakumea jabegotzat soilik hartzen bada, gizonaren desioen objektutzat, eta ez baldin bada guztiz gizonaren pareko emakume bat bezala tratatzen, kultura horrek ez du ulertu gizonaren benetako izaera, ezta emakumearen benetako izaera ere.

Gizona eta emakumea entitate edo izate bakar baten bi zati berdinak dira.

Gizona ezkongabea izan eta bakarrik bizi denean, bere **IZATEAREN ITURRIAREN** alde bakar bat erakusten du, eta emakumea bakarrik eta ezkongabe bizi denean, berak ere bere **IZATEAREN ITURRIAREN** alde bakar bat erakusten du.

KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN ZERUKO ASMOA, BERE osotasuna adieraztea izan zen

sortzearen bidez, **BERE BURUAREN** bi alde orekatuetako bakoitza itxura fisikoan indibidualizatzean, eta gero berriz itxura fisikoan elkartzean **ZERUKO KONTZIENTZIAREN** batasuna eta osotasuna esperimendatzeko, zeinetatik hasieran aldeek banakotasuna hartu baitzuten.

Alde horiek espirituaren eta gorputzaren maitasunean eta batasunean elkartzean, **KONTZIENTZIA UNIBERTSAL** orekatuaren alaitasuna eta extasia aurkitzen dute.

(Prozesu hori guztia, argi eta garbi erakusten da **5. eta 7. GUTUNETAN**)

Beraz, gizonaren maskulinitatea eta emakumearen feminitatea elkartzea ezinbestekoa da **IZATEAREN ITURRITIK** hartutako 'osotasun' bat sortzeko; konbinatze horretatik haur oso bat sortzen da.

Palestinako basamortuan izan nintzenean, lehendabizi ulertu nuen **gure IZATEAREN ITURRIA den KONTZIENTZIA UNIBERTSALAREN Sormenaren izaera** nagusia, **ASMOA** zela. Sortzeko, planifikatzeko, eta diseinatzeko **asmoa** zen; eta gero, **asmoa** ere bazen diseinu hori ekoiztea: lantzean, elikatzean, babestean, eta bere behar guztiak asetzean modu diziplinatuan.

Gizonezkoa nahiz emakumezkoa itxura fisikoan eta kontzientzian eboluzionatuak izan dira **ASMOA** esperimendatzeko, **eta ahal diren modu guztietan adierazteko beren bizitzetan. Horixe da, benetan sormenaren lehendabiziko egintza.**

ASMORIK gabe ez litzateke SORTZERIK.

Existentzia ororen sorburua da **ASMOA**, eta **ASMOAK** barneratu egiten du hura.

ASMOAK egintzaren izaera -amultsua edo suntsikorra- zehazten du.

Gizona eta emakumea indibidualizatuak izan dira beren bizitzetan **ASMOA** esperimendatzeko eta adierazteko. Horixe da, benetan, sormenaren lehendabiziko bulkada.

Gizona eta emakumea indibidualizatuak ere izan dira **NAHIAREN INDARRA** esperimendatzeko eta adierazteko.

NAHIAREN INDARRA gizonezkoarengan batez ere jarduera bezala esperimendatu eta adierazten da. Jatorrizko formetan ingurura ateratzen da bere asmoa gauzatzeko. Beraz, lider eta bilatzaile atorra jantzen du. Pentsatzeko eta lan egiteko izan zen indibidualizatua, bere asmoak egiteko emozioen oztoporik gabe.

NAHIAREN INDARRA emakumezkoarengan **Sentimenduak** motibatzen du, eta **Sentimendu** bezala esperimendatzen da, batez ere. **Sentimendu horrek, jatorrizko ASMOA elikatzeko** eta zalantzarik gabe osotasunera eramateko **beharra esan nahi du** -gozamen handiz- honako prozesu honen bidez: zaindu, jaten eman, jantzi, konpondu, irakatsi, babestu.

HELBURUAK ez du zerikusirik **ASMOAREKIN**, guztiz bestelakoa da; zeren **HELBURUA, ASMOAREN** maila mentaletik jaisten baita, eta bulkada emozional bihurtzen baita, hau da, 'nahi den helburua lortzeko bidea' adierazteko desira.

'**Zerbait egiteko ASMO sendo**' bat, **etengabeko existentziaren atzean den HELBURU bihurtzen da.** Horrela, pentsamendua sentimenduarekin uztartzen da sortze-lanari helburu bat emateko. Maskulinoa

ideia berrien bila dabil inguruan etengabe, bere asmoak betetzeko modu berrien bila, bizitzan helburua emateko sortze-lanari.

Asmo femeninoak, 'helburu nortuak', sentiberak eta egonkorak dira, izaki maitatuen alde sakrifikatzeke prest daudenak.

Beraz, **IZATEAREN ITURRI** barneko oinarrizko bi **BULKADAK** -fisikoki gizon eta emakume bezala adieraziak- elkarren mendekoak dira. Batak ez luke bestea gabe irauterik izanen. Elkarren beharra dute sortzeak aurrera egin dezan. Gizona, bere higikortasun maskulinoagatik -nagusitasun bulkadagatik-, emakumea baino gehiagotzat hartu izan da. Hori halaxe da, emakumea egonkor geratzen delako, gizonarentzat segurtasuna sortuz. **Baina bulkada femeninoa baldintzagabeko maitasunaren bulkada da, begirune eta errespeturik altuenaren bulkada duina, zeinak emakumeari loratzeko eta helburua gauzatzeko gaitasuna ematen baitio etxe barruan bake mentalean eta alaitasunean.**

Zera da gizonaren eginkizuna: Familiarentzat segurtasun fisikoa eta irauteko baliabide materialak hornitzea. Eta emakumearen eginkizuna: segurtasun emozionala eta baliabide emozionalak hornitzea, familia giroaren baitan lorpen pertsonala eta alaitasuna izateko.

Iraganean, Ekialdean zein Mendebaldean, gizonak eginkizun menderatzailea izan du etxebarruan; eta bere borondatearen menpeko eta esaneko egin du emakumea. Hori egitean, Zeruko Kontzientziaren energiak okertu eta distortsioa eragin die aipatu energie; eta bere gogamenaren eta bihotzaren bidez bideratu ditu; eta hori egitean, gizarte desbideratua sortu du.

Gizonak distortsioa eragin du emakumearen kontzientzian ere, -horren esaneko eginkizunaren aurrean- sakoneko erresumina eraginez berarengan; zeinak senez baitaki ez lukeela jasan beharko.

Eta horrela, gizonak bere buruarentzat eta bikotekidearentzat bizimodu lotsagarria eta apalgarria sortu du, bere **IZATEAREN ITURRIAREN IZAERAREKIN** erabat gatazkan dagoena.

Emakumeak bere erasoaren bulkada maskulinoa erabili behar izanak, -bere izatearen berdintasuna adierazteko, gizartean merezi duen begirunea lortzeko-, zera esan nahi du: zuen zibilizazioa guztiz ez-egonkortu eta gaixo bihurtu dela. Emakumea eginkizun maskulinoa etsipenez lapurtzen ari da, baina hori egitean, kreazioaren atzeko asmoari iruzur egiten ari zaio. Gizonak eta emakumeak erabat galdu dute beren norabidea. Herri azpigaratuetan jendea erdizka baino ez da bizi, eta gizonaren eta emakumearen arteko zatiketa ustegabeko sexuaren bidez konpontzen ahalegintzen dira. Horren ondorioz, gizona eta emakumea oraindik zatituago eta asegaitzago egotera heltzen dira. Familia batasunaren gatazkak larritasuna, miseria eta banaketa sortzen du, nahiz eta teilatupe berean bizi.

Herri 'garatuetan' kabinete psikiatrikoak, benetan nor diren edo bizitzan helburua zein duten ez dakitela dioten zoritxarreko pertsonaz eta hurrez beterik daude. Galdera horiek erantzuten ere ez dakiten 'adituei' egiten dizkiete.

Hemen gogora ekarri beharra dago pertsona bakoitzak -gizonak zein emakumeak- badauzkala bizitzan ikasi beharreko ikasgaiak, eta bakoitzak, aurkitzen den sexuan eta arrazan baino ezin dituela ikasi.

Horregatik, emakumeak bikotekidearentzat eta seme-alabentzat maitasun emozionalaren eta segurtasunaren hornitzaile-eginkizuna onartu behar du begirunez eta duintasunez, eta ahalik eta ongien bete. Gizartearentzat segurtasun emozionalaren hornitzaile-eginkizuna ezinbestekoa dela onartu beharra dauka. Familiak, hiriak eta herriak elkarturik bermatzen dituen maitasuna eta ongizatearen 'lekeda' hornitzen du berak. Berak gizartean dituen benetako tokia eta helburua zein diren ulertzen duenean, eta, ahalik eta modurik goratuenean egiten eta lortzen saiatzen denean, baldintzagabeko maitasunaren bidean aurrera egiten du agudo, eta saririk altuenak izango ditu bere buruaren gauzatzea eta zoriontasuna. Kontzientzia-maila jasoagora ere igoko da, agian hurrengo bizitzan gizateriari onura handiak ekarriko dizkion gizon bat bezala.

Era berean, bilakaera espirituala izandako gizonak -maisua espiritualak barne- lurreko bizitzara itzuliko dira benetako apaltasuna ikastera, eta beren existentziaren oinarri altuak eguneroko praktikan jartzera, emakume amultsu bezala; zeinak amarena egiten baitu jakintasunez, eta beharra duten guztiak elikatzen baititu eskaini ahal duenetik. Non da, orduan, ezberdintasuna?

Ken itzazu zure ikusmen eta adimen mugatuetako ezkatat, argi eta garbi ikus dezazun ez dela ezberdintasunik egon behar; soilik **ASMO** partekatua, **Zeruko Kontzientziatik** biok hartu duzuen guztia ahalik eta espiritualen adierazteko, lurrean ahalik eta zoriontasun handiena lortzeko.

Datozen urteetan, gizon batek eta emakume batek, espiritualki eboluzionatuak direnean eta **ASMOAN** zatiturik daudenean, beren asmoak elkarrekin eramango dizkiote **ZERUKO KONTZIENTZIA - AITA - AMARI** eta zera galdetuko diote: Zer sortu behar da gure inguruabarretan? Zein da aurrera egiteko modurik hoberena?

Haiek erantzunak jasoak dituztenean, bihotz-bihotzez onartu eta partekatuko dituzte. Erantzun horietan eman daitekeen edozein ezberdintasun errespetarazia izango da; eta berriz, **Zeruko Kontzientziara** eramango dute; berriz ere ezberdintasunak badira, errespetatu eta berriro **Zeruko Kontzientziara** eramango dute eskaera berbera eginez harik eta zinezko adostasuna lortu arte. Berriz, gizona eta emakumea -batera- **Zeruko Kontzientziara** itzuliko dira zera galdetzera: Nola erdietsiko ditugu hobeto geure helburuak? Eta, berriz ere partekatuko dituzte erantzunak; eta galdetzen jarraituko dute, azkenean plan gauzagarri batera heldu arte. Plan hori giza garunean ezezik sormenaren maila gorenean ere - **ZERUKO KONTZIENTZIAN**- sortua izango da.

Horrela batera lan eginez, arimaren, gogamenaren, bihotzaren eta gorputzaren arteko benetako batasunak dakarren zoriontasun gorena ('extasia') esperimentatuko dute azkenean.

Azkenik, gizona ezingo litzateke erraz existitu bulkada femeninotik zerbait esperimentatu eta manifestatu gabe. Emozioen beharra ere badu emaztearekin, seme-alabekin eta beste erlazioekin -eskolako kide, lankide, lagun eta adiskideekin- elkartzeko. Sentimendu berorik gabe, bihotz gabeko munstro edo mamutzarra litzateke.

Maiz, gizon hori arima zaharra bada, emakumea zeneko aurreko haragitzeetako berotasuna eta maitasuna bizirik gordetzen du berak. Espiritualki zenbat eta bilakaera handiagoa duen, orduan eta orekatuagoak dira bere izaeraren barneko bi bulkada sexualak.

Hori guztia emakumeei ere ezartzen zaie.

Era berean, emakumea ezingo litzateke erraz existitu bulkada maskulinoetik zerbait izan gabe. Buru argiz planifikatzeko gaitasunik gabe, bere etxea desastre hutsa litzateke. Baliteke aurreko haragitzean nortasun maskulino indartsua eduki izana, eta orain besteengatik sakrifikatzeko eginkizun femeninoan ezeroso sentitzea. Aipatu emakumeak ikuspegia argitzeko eskatu behar dio **Zeruko Kontzientziari**, ikus dezan lidergoa jardun arriskutsua dela gizateriaren aldeko maitasunik gabe.

Gizonak zein emakumeak euren baitan berdindutako izaera maskulinoen eta femeninoen orekara hurbiltzen direnean, bulkada sexuala gainditzea da bizitzan duten eginkizuna, jende guztiarenganako baldintzagabeko maitasuna lortzearen bidez, bulkada bera sormen hutsera bideratuz, arteetan bezala. Pertsona horiek 'Maisu-Maistra' egiten dira, beren buruaren 'Maisu-Maistrak', sortzearen 'Maisu-Maistrak', giza kontzientziaren 'Maisu-Maistrak', 'materiaren' 'Maisu-Maistrak'.

Zoritxarrez, gaurko garai honetan, ...zuen gizonak eta emakumeak, izaera bakar baten barnean berdindutako izaera maskulino eta femeninoen orekara hurbiltzen ari direlarik, azalpenik ez dute, ez dakite zeintzuk izan behar diren beren benetako helburuak. Norabidea galdu dute eta euren artean sasi-gizartea sortu dute; non bilatzen duten alaitasuna eta gauzatze pertsonala ukatuak baitituzte, lorpen espiritualez baino gorputz funtzioez kezkatuago daudelako. Pertsona horiek, zoritxarrekoak eta gatazkek oinazetuak izaten jarraituko dute, harik eta 'benetan nor diren' galderari dagokion egiaz jabetu arte.

Bizitzan eginkizun femeninoaz hitz egitean, esan beharra dago emakume moderno askok bulkada maskulinoetik maila altua lortu dutela herri garatuetan azken ehun urteetan. Emakumeek kontu handiz aukeratu behar dituzte beren lehentasunak bizitzan. Ez dute zertan eserita eta asperturik geratu etxean; baina zoriontsuagoak izango dira eta beren burua gauzatuagoa izango dute, baldin eta adimena eta trebetasunak eskaintzen badituzte familia guztiarentzat bizimodu eraikitzaile berriak sortzeko. Baliteke une honetan nola egin ez jakitea; baina, meditazioak gogamenera beharrezko inspirazioa ekarriko die, lider izateko gaitasunak eta talentuak erabiltzeko modurik onenaz, guztion zorionerako.

Emakumeekin eta lagun hurkoekin enpatia izateko gaitasun handiagoa garatu duten gizonak, meditazioaren eta ondorengo inspirazioaren bidez ere, lanean nagusi izateko gaitasuna adieraz dezaten modu jasoagoak topatuko dituzte, gainerakoei zoriontasuna emanez.

Nik-Guk-zergatik eman diogu sexuei buruzko gai horri hainbesteko sakontasuna?

Hori guztiz ezinbestekoa izan da; -bai Ekialdean, bai Mendebaldean- sexuen borroka gaixotasun egoerak sortzen ari delako lurrean. Horrek eraso hedatzen du, eta haserrea eta etsakeria pozoitzen ditu.

Askatasun sexualak desagertze puntu kritikora ekarri du mundua IHESAREN kutsaduragatik. Birus guztiak sortuak dira kontzientzia suntsigarriaren indarren barrenean.

Ulertu beharra daukazu, gizakiek sortu dituztela beren birusak. Birus bakoitza, ikusgai egindako kontzientzia bizi eta suntsitzailearen bulkada da. Birusa, kontzientzia suntsitzailearen bulkada bidalia

izan zen aldera doa, birusak berak forma hartu zuen unean.

Existenziaren aspektu horretaz argi eta garbi hitz egin nuen -Jesus pertsona nintzela- lurrean nengoenean. Juduek, kopak garbitzeko tradizio hertsia zeukaten bertatik edan aurretik. Argi eta garbi esan nien ez zirela kezkatu behar ahotik sartzan zenaz. Gehiago kezkatzeko esan nien gogamenetik, bihotzetik eta gero ahotik ateratzen zenaz. Garai hartan zientziak oraindik deskubritu gabe zeukan birusen presentzia, baina onartuta zegoen gaixotasuna tresna zikinekin jan eta edatearen ondorioa zela. Baina nik jakin banekien, gaixotasuna -jatorriz- bortizki haserretutako pertsonen gogamen eta bihotzetatik sortua zela. Gero, gaixotasuna zelulen zatiketaren bidez hedatzen zen, gaixotasunak berak betiko eramanez hasieran izateak eman zizkion sena eta kontzientzia.

IHESA, inola ere, ez da istripua! Autoatsegin-kontzientziaren indarretatik eta bikote sexualen arteko erreakzio emozional suntsitzaileetatik sortu da. Barruko gorrotoak eta haserreak harreman sexualera bultza ditzakete pertsonak; atzean hondakin gaixotia utziz gogamenetan, emozioetan eta gorputzetan.

Sintonizazio emozionalak ez duelako beti erakarri gizon eta emakumeen arteko harreman sexuala, batzuek eta besteek etsipen latzak ezagutu dituzte, eta askatasunik eta asetasunik eza. Hori gertatzen denean, energia sexual maskulinoa gutxitu egiten da. Biziberritua izan behar izaten da perbertsio sexualen irudiekin.

Horren ondorioz, pornografia 'sekulako negozioa' izatera iritsi da zenbait herrialdetan. Pornografiak, soilik atsegin ematen die gorputz-senei. Pornografiak sortu ditu emakumeekiko begirune eza eta emoziorik gabeko harreman sexual mekanikoa; baita bortxaketen areagotzea eta haurren aurkako abusu sexuala ere. Ankerkeria gaiztoko egintza higuigarri horiei amore ematen dien jendeak, zaude ziur, ondorioen uzta jasoko duela, bizitza honetan ez bada etorkizuneko haragitze batean.

Beraz, Islamaren jarraitzaileek Mendebaldea -jokabide sexual diziplinagabeagatik eta perbertsioagatik- salatzen dutenean, arrazoi dute lur gainera kondizio gaixotia erakartzen ari direla pentsatzean. Egoera osasungaitz horiek ez ditu Alak bidaltzen, aitzitik, **EXISTENTZIAREN LEGEAK** haustearen ondorio naturala dira.

Era berean, Islamaren jarraitzaileak **EXISTENTZIAREN LEGEAK** hausten ari dira juduak bezala, 'begia begiordez' legea gordetzen dutelako eta Gerra Santuan sinesten dutelako. Ez dago Gerra Santua bezalakorik; Izatez, Barkamen Santuaren Errealitatea eta Adiskidetze Santuaren Errealitatea dira soil-soilik; eta horren arabera, zure 'lagun-urkoa' -etsaia nahiz laguna izan- maitasunez eta ulermenez tratatu behar da.

EXISTENTZIAREN LEGEAK hautsiz gero, zuetariko inor ezin da Zeruetako Erresuman edo Paradisuan sartzeko gai izan. Zuen jokabideak ez dauka lekurik, eragiten ari zareten zalapartatik haratago; zeina -zalaparta- zeuen gainera eroriko den. **GUK** pentsamendu hauekin utziko zaituztegu,

eta eskatzen dizuegu zuek kontzientzian sakonki jasotzeko eta bizitzan ongi erabiltzeko. Biziki aholkatzen dizuegu talde txikitan biltzen joateko erlijio-sineskerak alde batera utzita, **GUTUNAK** eredu bezala erabiliz eguneroko bizitzan. Desegin ezazue, ahal izanez gero, zuen baldintzapena, eta elkar zaitezte apal-apal egiatzko espiritualitateaz gutxi dakizuela onartzeko prest dauden pertsonak bezala, baina zuen bizitzari indarra eta espiritualitatea nola eman ikasteko guztiz irrikitan zaudeten pertsonak bezala.

Zuetako askok dakizuenez eta jabeturik zaudetenez, munduko historiaren aro berri batean sartzen ari zarete; eta bertan ikusiko da banalerro nagusia ez dagoela jada aberatsen eta pobreen artean. Garrantzi handiko banalerro hori **kontzientzian** izanen da. Banalerro horren alde batean hauexek egongo dira: Kontzientzia espiritualik gorenerako atea aurkitu ahal izan dutenak, zeintzuek maitasuna eta onarpena guztientzat -lagunak eta etsaiak- berdin irradiatuko dituzten eta Zeruko Kontzientzia irradiatzea helburu izanen duten. Eta lerroaren beste aldean: beren 'egoaren' bulkaden barruan itxita, ahulen menperatzea bilatuz geratuko direnak. Baliteke aldi baterako arrakasta dutela ematea, baina azkenean porrot egingo dute; eta sufrimendua sekulakoa izanen da eurek sortutako iluntasunean. **GUTUN** hauek, iluntasunetik ateratzeko eta **ARGIAN** sartzeko bitartekoa izango duzue.

Zuk zeure kontzientzia espiritualaren frekuentziak igotzea bilatu ahala, baldintzarik gabeko maitasuna guztiengana irradiatzean, astiro astiro zu KONTZIENTZIA IGOTZE batetik igaroz joango zara, eta horrek eragin dinamikoa izango du zure osasun fisikoan eta zure lur egoeretan.

Pertsona adoretuok, kontzientzia mundialaren igotzea zuen esku egongo da. Datorren gatazkatik sendo eta ausart aterako zarete; eta beste 'kontzientzia mundial' mota bat eraikitzen hasiko zarete. Ezarriko dituzue aurrerapen espiritualaren, teknikoaren eta ekonomikoaren hastapenak; baita mendeetan zehar iraungo duen bake mundiala ere.

NIK, KRISTOK, esan egin dut - GUK - MAISU MAISTREN SENITARTEAK – Kristauei, Musulmanei, Budistei, Judutarrei, Hinduistei, Sufiei eta munduko erlijio-sineskera guztietakoei hitz egiten diegu. Gure maitasunean bildurik zaudete denok. Sinetsi! – hori egia da eta.